

# X. PREMIO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA FILM COMMISSION SARIA 24 IRAILA SEPTIEMBRE 2021



San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission bulegoak (Donostia Sustapeneko- Donostiako Udalaren Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren menpeko bulegoa) helburu du Donostian eta Gipuzkoan sektore zinematografikoa eta ikus-entzunezkoena bultzatzea eta sustatzea. Horretarako, gainera, bulego honek Gipuzkoako Garapen Agentziekin lankidetzatza du.

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission bulegoak aktiboki lan egiten du sektoreko eragileak identifikatzen, bai eta bertako ETEei eta profesionaleri laguntza emateko politikak abian jartzen ere. Haren helburu nagusien artean hauek daude:

-Donostia - Gipuzkoa bultzatu eta sustatzea. Horretarako, ikus-entzunezkoen filmaketak eta argazki saioak erakarriko dira, eta haiek egiteko bideak egingo; horrela, Donostia-Gipuzkoa lehen mailako helmuga izango da, filmatzen diren produkzioen kopuruagatik eta kalitateagatik, filmaketek eragin ekonomiko handia izaten baitute egiten diren lurraldean.

-Tokiko eta probintziako sektore zinematografikoa eta ikus-entzunezkoen sektore digital osoa bultzatu eta sustatzea, eta haren lehiakortasuna eta kalitatea bultzatu eta sustatzea; horretarako, lan egin behar da, hona erakartzen diren kanpoko filmaketek tokiko sektoreko enpresekin, eragileekin eta entitateekin lankidetzan jardun dezaten.

Helburu horien esparruan, San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission bulegoak San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren hamargarren edizioaren deialdia atara du. Deialdiaren helburua da ikus-entzunezkoen ekoiztetxeen lana aitortzea, beraien filmaketekin negozio aukerak eta enplegua sortzen baitituzte produkzio horien agertoki bihurtzen diren hirietan.

## X. SAN SEBASTIAN - GIPUZKOA FILM COMMISSION SARIAREN OINARRIAK

### 1. Sariaren helburuak

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren helburua da ikus-entzunezkoen ekoiztetxeen lana aitortzea, izan ere, beraien filmaketekin negozio aukerak eta enplegua sortzen dituzte produkzioen agertoki bihurtzen diren hirietan. Sarituak izango dira filmatu diren tokietako hiri balioak, paisaia balioak, kultura balioak eta balio sozialak hobekien islatzen dituzten fikziozko film luzeak.

### 2. Partaideak eta baldintzak


Fikziozko film luzeen proposamenak San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sarira aurkez ditzakete baldintza hauek betetzen dituzten ekoiztetxe nazionalak:

- Beraien produkzioen edo koprodukzioen zati bat nazio lurraldean garatu duten ekoiztetxe nazionalak izatea.
- Estatuko Film Commission batek egiaztaturiko lankidetzatza eduki izana.
- Ekoiztetxe bakoitzak gehienez 2 film luze aurkez ditzake.
- 2019ko urriaren 1etik aurrera areto komertzialetan estreinatuta eta/edo zinema jaialdietan aurkeztuta dauden film luzeak aurkeztu daitezke. Estreinatuta gabe dauden film luzeak ere aurkeztu daitezke, baina kasu honetan 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ekoiztuak egon behar dira.
- Film luzeak izango dira 60 minutu baino gehiagoko iraupena duten pelikulak.

### 3. Kontaktua

Interesa duten ekoiztetxeek sariari buruzko informazioa eska dezakete, edo kontsultak egin, honen bidez:

- Posta elektronikoa: [info\\_filmcommission@donostia.eus](mailto:info_filmcommission@donostia.eus)



### 4. Izen-ematea eta pelikulak hautatzea

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission bulegoak hautaketa batzorde bat deituko du. Honek baloratuko ditu izena eman duten film luze guztiak, eta amaierako aukeraketa bat egingo du epaimahaiarentzat. Aterako aukeraketa horretatik, Epaimahaiak San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Saria emango du.

Film horien izen-emateak ekoizleek edo haien legezko ordezkariak gauzatu behar dituzte. Izen-emateen barnean egon behar da inprimakia eta eskaturiko informazio osagarria.

Aukeraketa egiteko, soilik Festhome plataformaren bidez bidaliriko pelikulak onartuko dira:

<https://festhome.com/festival/premio-san-sebastian>

Izena emateko deialdia ekainaren 30era arte egongo da irekita.

Izen-ematearekin batera, ekoizleak dokumentu bat bidali behar du, egiaztatuz film luzea filmatzeko garaian Film Commission baten lankidetzatza izan zela. Dokumentu hori ez badago, film luzea ez da onartuko sarian.

Dokumentazioa helbide honetara bidali behar da:

- Posta elektronikoa: [info\\_filmcommission@donostia.eus](mailto:info_filmcommission@donostia.eus)

### 5. Epaimahaia eta Saria

Epaimahaia gehienez bost pertsonak osatuko dute. Pertsona horiek aitorturiko esperientzia izango dute hirietako hiri balioekin, paisaia balioekin, kultura balioekin eta balio sozialekin loturiko esparruren batean edo batzuetan, eta esperientzia izango dute ikus-entzunezkoen sektorean ere. Epaimahaia osatzen duten pertsonak eta epaimahaiaren buru den pertsona San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission bulegoko arduradunek izendatuko dituzte.

Ezingo dute Epaimahai honetako kide izan sarira aurkezten diren pelikulekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden pertsonak.

Epaimahaiaren buru den pertsonak kalitatezko botoa izango du, berdinketa kasuan.

### 6. Sariaren zuzkidura

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Saria 10.000 eurokoa izango da. Honela banatuko da:

- 7.000 euro, sarituriko film luzea ekoiztu duen enpresarentzat.
- 3.000 euro, dagokion Film Commission laguntzailearentzat.

Sari-ematea 2021eko Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarekin batera egingo da.

### 7. Saria zabaltzea

Sarituriko film luzearen ekoizpen enpresak eta zuzendariak konpromisoa hartzen dute saria jasotzen den unetik film luzearen komunikazio eta irudi politikan sartuko dela, berariaz eta modu argian, **X. San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Saria** aipamena. Sariaren logoa sartuko da, baita saria eman ondoren antolakuntzak adierazten dituen logoak ere.

### 8. Oinarriak interpretatzea

Sari honen deialdian parte hartzeak esan nahi du deialdiaren oinarriak onartzen dituztela parte hartzen duten ekoizpen enpresek, dagozkien produkzio eta zuzendaritza taldeek eta Film Commission-ek. Donostia Sustapenak, San Sebastian - Film Commission bulegoa ordezkatzuz, eskubidea du oinarri hauei buruzko edozein gai aldatzeko, baldin eta interpretatzeko orduan gertakariren bat sortuko balu gai horrek.

## 9. Datuen babesa

Datuak babesteko egungo araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da ematen dizkiguzun datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun gisa jokatzuz. Informazioa Donostia Sustapena S.A.k kudeatuko du, tratamenduaren eragile gisa jokatzuz.

Tratamenduaren helburua da 2021eko San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sarian zure izen-ematea izapidetzea eta zure partaidetza kudeatzea.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria da DBEOren 6.1.b) artikulua, zeinak baitio tratamendua beharrezkoa dela interesdunak parte hartzen duen kontratu bat gauzatzeko (lehiaketaren oinarrien onarpena), eta DBEOren 6.1.e) artikulua: tratamendua beharrezkoa da interes publikoko helburua betetzeko, edo tratamenduaren arduradunari emaniko ahalmen publikoak gauzatzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriena, eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeena.

Oinarri hauetan edo dagozkion eskaera inprimakietan horrela adierazten denean, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa aurkeztea derrigorrezkoa izango da, eta horiek ez badira ematen edo datu okerrak ematen badira, zure eskaera ezingo da kudeatu.

Zure datu pertsonalak Hautaketa Batzordeko kideei (izena emaniko film luzeak baloratuko dituztenak) jakinarazi ahal zaizkie, eta epaimahaiko kideei (saria emango dutenak). Sarituak pertsona fisikoak badira eta prestazio ekonomikoa badago, datuak banketxeei jakinaraztea aurreikusten da, dirua ordain dezaten, eta lege betebeharrean oinarriturik, Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, edo kontabilitate kontrolean eskumena duten beste erakunde batzuei.

Ez da aurreikusten datuak hirugarren batzuei jakinarazterik, legezko obligaziorik izan ezean, ez eta datuen nazioarteko transferentziak egitea ere.

Tratamendu honen xede diren datuak beharrezkoa den denboran gordeko dira, alegia, datu horiek jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuak tratatzetik etor litezkeen balizko erantzukizunak zehazteko beharrezkoa den denboran. Artxiboen eta dokumentazioaren araudian ezarritakoa aplikatuko da.

Eragindako pertsonen eskubidea dute datuetara sarbidea izateko, datuak zuzentzeko eta ezabatzeko, eta, era berean, datuak babesteko indarreko araudian ezarrita dauden beste eskubide batzuk ere badituzte, eta dagokionean eskubide horiek gauza ditzakete. Horretarako, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzura jo behar dute (Ijentea kalea, 1, 20003, Donostia).

Zure eskubideak gauzatzeko ez bazaituzte behar bezala artatu, erreklamazio bat aurkez dezakezu Datuen Babeserako Euskal Bulegoan. Helbidea: Beato Tomas Zumarraga kalea, 71 - 3. Solairua - 01008 Gasteiz. Hala ere, nahi izanez gero eta erreklamazio hori jarri aurretik, Donostiako Batuen Babeserako ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke: [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus).

